

2024KO APIRILAREN 26A

# begoñazpi

aste



LIBURUAREN EGUNA

## IRAKURKETAREN

# JAIJA

ASTE OSOAN IKASTOLAK ABIAN JARRI  
DAUZAN JARDUEREN ARTEAN, LIBURU-  
TRUKEA IZAN DA AZOKAREN ARDATZ

# Txikiek eta helduek Liburu Egunaz gozatu dabe ikastolan

Begoñazpi Ikastolan Liburuaren Munduko Eguna ospatzeko, azoka berezia izan dogu. Irakurketarako interesa pizteko liburu-trukea egin dogu. Holan, ikasle bakoitzak ikaskideakaz partekatzen gogoko liburua ekarri dau. Ez daigun ahaztu, irakurketa oinarri-oinarrizkoa izateaz gain, egunero egin beharreko jardura dala.



Irakurketa da hezkuntzaren oinarria. Txikienek be, aste honetan hainbat ekimen landuz, ospatu dabe Liburuaren Eguna. Gelaz gela ibili gara ipuinak antzeztu, musikatu,... kontatzen. Arpegiek dana esaten dabe.



## Eduardo Infante filosofoaren bisita

Batxilergoko ikasleak, hezkuntza munduan oso ezaguna eta barritzailea dan Eduardo Infante filosofoagaz solasean egon dira. Egungo eta hurreko adibideak emonez, egileak gazteak filosofiara erakarri dauz.



## Tekno Moda Legoñazpin

Robotika, zientzia eta teknologiako gure txapelketak, zalantza barik, ikasleen pentsamentua garatzen dau. Hainbat arazori aurre egin ezezik, urtenbidea bilatu be egiten dau. Hona hemen adibideak.



## Esperimentazioa familiekaz

Begoñazpi Ikastolak dauan hezkuntza ereduan, urte bi eta hiruko umeek esperimintatzea ezinbestekoa da. Hori dala eta, 3 urteko txikiak jardura barritzaile bat garatuz, giza gorputzari eta zentzumenei buruzko proiektuan murgildu jakuz. Oraingoan, kolonia egiteko, gurasoen laguntza be izan dabe. Hauxe da segurtasunez ikastea.